



KOLDO ALDABE

■ ■ ■ Lana egin bai, baina lagun ugari egiteko aukera ere izaten da auzolandegi nahiz udalekuetan.

Jolasa eta lana, bakarka zein batera

Udalekuetan, jolas ekintzekin gozatzeko aukera izaten dute gaztetxoek; auzolandegiek, berriz, giro onean lan egiteko aukera eskaintzen dute

Oporrak igarotzeko modu asko dituzte gazteek. Batzuek, urte osoan nahikoa lan egin dutela edo ikasturtea buru-belarri ikasten eman dutela eta, atsedeen hartzea erabakitzen dute. Beste askok, berriz, nahiago izaten dute lan esperientzia pixka bat hartu, baina, betiere, lagunarteko giro polit batean.

Hitz gutxitan azalduta, zerbitzu hauek eskaintzeaz arduratzen dira Euskal Herriko udalekuak eta auzolandegiak. Azken finean, uda modu desberdin batez igaro eta eguneroko bizitzari ihes egiteko aukera ematen

digute biek. Jolas eginez, hizkuntzaren bat ikasten edo lanean, pare bat astetan lagun berriak ezagutu eta bakoitzaren mundutik urruntzeko parada daukate gazteek; hori bai, betiere arau batzuk errespetatuz. Normalean, udalekuetan 18 urte bitarteko gazteak aurkituko ditugu, eta auzolandegietan, berriz, adinez nagusi diren gazteak.

Azken hauek beren borondatez aritzen dira lanean auzolandegietan. Egitasmo komunitario batean laguntza ematera joan ohi da jendea. Euskal Herriko gazteek

**18 urte artekoak
izaten dira
udalekuetan eta
adinez nagusiak
auzolandegietan**

Urtxintxa eskola

Badira udalekuen inguruan ekimen bereziak jorratzen dituzten eskolak ere. Esanguratsua da Urtxintxa eskolaren kasua: bi aste edo egun batzuetarako egin beharrean, egunez bakarrik funtzionatzen duten zenbait udalekuren kudeaketaz arduratzen da Urtxintxa. Nafarroan, Goizuetako Axerra Borda aterpera edo Orbaizetara joaten diren gazteak, eta Gipuzkoan Abaltzisketara edo Pasaia Arrokaundieta aterpera, eta

era guztietako jarduerak egiten dituzte egun osoan, eta gauean etxera itzultzen dira. Honez gain, begiraleak aukeratzeaz ere arduratzen da. Ahinize Hernandez Urtxintxa eskolako Eragintza Kultur Erakundeko koordinatzaileak esan digunez, jende tituluduna eta euskalduna eskatzen dute. «Astaldi hauek ume euskaldunentzako antolatzen ditugu. Mundu honetan esperientzia izatea gomendatzen dugu begirale gisa aritzeko».

bertako auzolandegietan egiteko aukera ere baduten arren, hona kanpoko jendea etortzea eta hemengoak kanpora joatea izaten da arruntena, truke egitea. Honela, lurralde berriak ezagutzeko astia ere izan ohi dute Euskal Herritarrek.


Natura eta baloreak

Udalekuak, berriz, beste helburu batzuekin sortu ziren. Alde batetik, lanean ari diren eta seme-alaba gaztetxoak dituzten gurasoentzat irteera egokia da berauek ongi zainduta eta giro atsegin baten egongo diren lekuetara bidaltzea. Bestalde, udalekuak bizikidetzaren eta baloreen esparruan ikasgai aproposa suertatzen dira adin txikikoentzat. Naturarekin harremanetan, hainbat ekintza egiteko aukera ere eskaini ohi dute zentro hauek. Honen adibide esanguratsu bat dugu Uda Gaztea 2002 ekimena. Bertan, sei ingurune dituzte aukeran gaztetxoek.

Nafarroako Pirinioetan, Baztango haranean kokatuta dago Bertizeko aterpea. Inguruko baliabideak modurik onenean aprobetxatuz, jolas, kirol eta kultur arloko jarduerak anitz eskaintzen ditu aterpe honek. Nafarroa Beherean, Bidarrain, Añamendi eta Etxe Zaharria aterpeekin egiten dugu topo. Errobi ibaiaren ertzean kokatutako ingurune natural honetan abentura kirolak egin daitezke, baina ezin ditugu ahaztu bertan egin ditzakegun kultur ekintzak ere.

Bizkaiko Urdaibai natur parkean, berriz, Arketas kanpina daukagu. Bizkaiko Golkoaren barren-barrenean sartuta, ziu-rrenik Euskal Herriko paisaia aberastasunik handiena eskaintzen digun edertasun bereziko tokiaz gozatu ahal izango dugu, era guztietako kirol eta kultur ekintzak eginez.

Ez da hori, ordea, Bizkaian dagoen udaleku bakarra. Urduñan, Txarlazo mendiaren oinean, eta Salbada mendilerroak inguratuta, jolas, kirol eta kultur jarduerak eskaintzeaz gain, ingelesezko lau orduko eskolak ematen dituzte bertan. Seigarren udalekua ezagutzeko, Euskal Herriatik irten beharko genuke, Huescako Guara



HERNANI

Bidaiak

HERRIAK • MENDIAK • TURISMOA

Urbietta, 6

☎ 943 33 00 49 / 943 33 01 74

Faxa: 943 33 01 74

20120 **HERNANI** (Gipuzkoa)

BEGONA ERRETEGIA




LOGELAK

Zarautzetik sarrera

Urdaneta Auzoa • AIA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 83 18 29





ONDARRE

NEKATUTURISMOA

☎ 943 801 664 SEGURA

- Aizkorri azpian, ingurune paregabean
- 6 logela beren bainuekin
- Etxeko gazta ...

Zatoz eta proba ezazu!

